

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

KANTAUURIKO URKIDETZA

Ur horniduraren eta saneamenduaren zerbitzu tasei buruzko zergadunen errolda, 2021eko laugarren hiruhilekoko

Erabiltzaileak Hartzeko Zerbitzuak ur horniduraren eta saneamenduaren zerbitzu tasei buruzko zergadunen 2021eko laugarren hiruhilekoko errolda egin du.

Lehendakariak onetsi egin du 2021ko otsailaren 1eko 036 zenbakiko ebazpenaren bidez, eta jendaurrean jarriko da hamabost (15) egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Interesa dutenek, hitzordua eskatu ondoren, Amurrioko udaletxeko Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan (Juan de Urrutia plaza, z/g, beheko solairua) aztertu ahal izango dute erreferentziako zerga-espeditatea, 7:45etik 15:00etara, astelehenetik ostiralera, lanegunetan. Beren eskubideen alde egokitzat eta komenigarritzat jotzen dituzten azalpen, alegazio eta/edo erreklamazioak ere egin ahal izango dituzte.

Likidazioen jakinarazpen bateratua egitea du helburu zergadunen erroldak jendaurrean jartzeak, hala egin behar dela xedatzen baitu Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 98. artikuluan 3. apartatuan.

Zergadunek berraztertze errekurtsa aurkeztu ahal izango dute lehendakariaren ebazpen horren aurka, hilabeteko (1) epean, iragarki hau jendaurrean jartzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Lehendakariari jarriko zaizkio, aurretik xedatutako epeetan, azalpenak, alegazioak, erreklamazioak eta berraztertze errekurtsuak.

Borondatezko aldi ordaintzeko epea bi hilabetekoa izango da, 2021eko martxoaren 15etik maiatzaren 14ra, bi egun horietan barne.

Zergaren ordainketa helbideratuta daukatenei 2021eko martxoaren 15ean kobratuko zaie.

Tasa horren ordainketa helbideratuta ez daukatenei Amurrioko Elexondo kaleko 21. zenbakian dagoen Caixabank-eko sukurtsalean ordainduko dute, astelehenetik ostiralera, 8:30etik 10:30era, etxean jasoko duen faktura aurkeztuta. Ordainketa ostegunetan baino ezin izango da egin, 08:30etik 10:30era. Faktura galdu edo jaso ezean, kopia bat egingo da Amurrioko udaletxean, Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan.

Borondatezko aldiko dirubilketa epea amaitutakoan, ordaindu gabeko kuotak premiamendu bidean sartuko dira, eta legez ezarritako errekarguak sortuko dituzte, bai eta, hala badagokio, berandutze interesak eta kostuak ere.

Izoria, 2021eko otsailaren 11

Lehendakaria

JULEN IBARROLA GOBANTES